

## KULTURSYSTEMA

Kultura eta sormen ekosistemak mapeatu,  
interpretatu eta aztertzeko matrizea

*Ricardo Antón Troyas y Roberto Gómez de la Iglesia*



## ZER DA KULTURSYSTEMA?

KULTURSYSTEMAK kultura eta sormen ekosistemak mapeatu, interpretatu eta aztertzeko kategorizazio matrize bat (edo matrize multzo bat) proposatzen du. Bere aniztasuna islatu nahi du sektore eta azpisektoreekiko, balio katearen kate-begiekiko, esparru horretan esku hartzen dute eragileen tipologiarekiko, bai eta funtsezko eraginen eta itzuleren ezaugarriekiko ere.

KULTURSYSTEMAren helburua da ahalik eta erarik aberats eta eguneratuenean laguntza ematea kultura eta sormen ekosistemetara hurbiltzeko; horien baitan daude eragile eta praktika berriak, edo, lehenagotik dauden tipologiak gurtzatzetik sortuta, ohiko analisi esparruetan nekez egokitzen direnak. Gainera, kultura eta sormen sektoreen izaera dinamikoa eta aldakorra adierazten duen hurbilketa da, nola berez, hala beste diziplina nahiz jarduera esparru batzuekin dituen harremanen ugaritasunaren ondorioz; bai eta aldakuntza teknologikoen, erreferentziako esparru instituzionalen edo balio sozialen eragina ere.

KULTURSYSTEMA tresna eraginkorra da sektoreko erakundeek eta profesionalek euren buruaren diagnostikoa egiteko, lagundu egiten dielako haien lehenasunezko jardun-eremuak zehazten eta nahi duten jarduera-esparrua errealitatearekin kontrastatzen. Politika kulturalak edota lurralde jakin batean sormena garatzeari lotutako politikak bideratzen laguntzeko tresna izatea du berezko joera; jardun-ingurunea hobeto ezagutu ahal du, eta ekintza publikoaren ikuspuntua erabaki.

Funtsean, KULTURSYSTEMA erabilgarria da erreferentziako elementu bezala hainbat lanetan: arduradun politikoak, antolakuntza kulturalerako taldeak, sektorean espezializatutako aholkulariak eta *policy makerrak*. KULTURSYSTEMAK lagundu egiten du ekosisteman parte hartzen duten eragileen eginkizuna zehazten.

KULTURSYSTEMAK eskaintzen dituen interpretazio tresnek bat egiten dute alderdi askotan kultura arloan ohikoak diren kategorizazioekin; esate baterako, bat egiten dute David Throsbyk proposatutako zirkulu zentrokideekin edo UNCTADen sailkapenarekin, txostena idazteko taldeak zabaldua eta, era berean, beste kategorizazio batzuekin kontrastatuta (Kulturako Agenda21, CNAE, Erresuma Batuko DCMS, Txileko Kulturaren Kontseilua, eta abar), bai eta Eusko Jaurlaritzak berak, "Kultura, sormena eta sormen aplikatua Euskadi RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren aukerako lurralde bezala" esparruan, alde zehatzetik egindako kategorizazioa ere.

Nahiz eta KULTURSYSTEMA Euskadiko lurralde esparruan agertu den, bertako aukera eta bereizgarrietako batzuei erantzunez, ahalegina egin da neurri handi batean beste leku batzuetara zabaltzeko moduko tresna izan dadin, betiere egokitze eta testuinguruan kokatzeko beharrezko lana eginda.

**ERABILGARRI IZANGO DUZUELA  
ESPERO DUGU!**

# KULTURSYSTEMAREN KONPOSAKETA

**1**  
ERAGILEEN TIPOLOGIA  
05-09

**2**  
KULTURA ETA SORMEN ARLOKO  
SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK  
11-19

**3**  
BALIO KATEA  
21-25

**4**  
ERAGINAK ETA ITZULERAK  
27-31

**5**  
GURUTZAKETAK ETA KONBINAZIOAK  
33-39

**6**  
ERREFERENTZIAZKO  
BIBLIOGRAFIA  
41-43

# 1

## ERAGILEEN TIPOLOGIA



Kultura edo sormen ekosistema bat aztertzeko ahal bezain eragile kopururik handiena identifikatu behar da, eragile horiek ekosistema horretan esku hartzeko daukaten bokazioa edozein izanda ere.

KULTURSISTEMAK pertsonak edo taldeak sailkatzeko proposamena egin du, helburu, izaera juridiko, antolatzeke eredu, dimentsio edo jarduera mota desberdinak dituzten pertsonak edo taldeak, alegia.

Xede nagusiari dagokionez, eragileak hiru jardun eremutan sailkatu ditugu; hala ere, eremuetako bat nabarmendu arren, askotan posible da eremu horiek elkarrekintzan aritzea edo gainjartzea:

- Egiturazko eremua  
Sorkuntza, ekoizpen, erakusketa, banaketa, kontserbazio eta merkaturatzeko espazio eta plataformak (fisikoak eta birtualak).
- Sustapen eremua  
Kultura eta sormen sektoreak arautu, sustatu eta bultzatzeko eragileekin.

- Sorkuntza eremua  
Ekintza zuzeneko eragileak, kultura edo sorkuntzako balio kateko edozein katebegi edo azpisektoretan.

Horrez gain, eragile horiek izan daitezke sektore publikokoak, sektore pribatu-komertzialekoak, gizarte sektorekoak edo ohiko sektoreak gurutzatzen diren puntuan eta gunean sortutako bitarteko antolamendu hibridoekin osatutako gorantz datorren laugarren sektore batekoak.

KULTURSISTEMAK sailkapen bikoitz hau proposatzen du, modu ez dogmatikoan, ulertuz gaur egungo kultura eta sormen ekosistemen baitan tipologiak korporatibismo klasikotik edo publiko-pribatu ala komertzial-sozial dikotomia ohikoetatik harago doazela. Eragileen gero eta dibertsitate handiago dago, asmoei, antolakuntza ereduei edo finantzazio sistemei dagokienez. Sarritan, tipologia desberdinetatik abiatuta, helburuak, estrategiak eta proiektuak partekatzen dira.



### Egiturazko eremua

Sorkuntza, ekoizpen, erakusketa, banaketa, kontserbazio eta merkaturatzeko **espazio eta plataformak (fisikoak eta birtualak)**.

- Antzokiak
- Aisialdi eta parke tematikoak
- Arte galeriak
- Artxibategiak
- *Coworkingak*
- Eduki digitalen biltegiak eta kanalak
- Ekoizpen zentroak
- Enkante aretoak
- Espezializatutako prestakuntza zentroak
- Estudioak eta tailerrak
- Gune balioanitzak
- Kontzertu aretoak
- Kultura zentroak
- Liburu-dendak
- Liburutegiak
- *Maker spaceak* eta *Hacklabak*
- Museoak
- Sormen fabrikak
- Zinema aretoak
- ...



### Sustapen eremua

Kultura eta sormen sektoreak **aratu, sustatu eta bultzatzeko eragileak**.

- **Administrazio publikoa** (sailak, erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak) eta erakunde pribatuak, kultura, sorkuntza eta sormena aratzeko, sustatzeko edota bultzatzeko eskumen eta interes zuzen eta ez zuzenekin, hainbat esparru eta mailatan.
- **Ordezkaritza kolektiboko erakundeak:** Asoziazioko federazioak / Enpresa elkarteak / Erakunde sindikalak / Jabego intelektual eta industrialeko eskubideak kudeatzeko elkarteak / Sektoretako klusterrak /...



### Sorkuntza eremua

**Ekintza zuzeneko eragileak**, kultura edo sorkuntzako balio kateko edozein katebegi edo azpisektoretan.

Hemen eragile mota oro hartzen dugu kontuan, banakakoa zein taldekoa, pertsona fisikoa edo juridikoa, dagokion jardun eremutik zuzenean esku hartzen duenean kultura edo sorkuntza testuinguruan edo merkatuan. Adibide argigarri gisa aipa daitezke, besteak beste, aktore bat, opera abeslari bat, zirku konpainia bat, ondare higigarria zaharberritzeko enpresa bat, hiri kulturako talde bat, diseinu grafikoko estudio bat, kultura gastronomikoko esperientziak sustatzen dituen elkarte bat, bitartekaritza artistikoko enpresa bat, kultura bitartekari bat, museologo bat, ikus-entzunezkoen ekoizpen-enpresa bat, kulturako aholkularitza enpresa bat, ekitaldiak antolatzen espezializatutako enpresa bat, artistikoak ez diren testuingurutan lan egiten duen artista bisual bat, eleberrigile bat, argitaletxe bat, etab. Hau da, sektoreko eragileak dira, ez dira nahitaez egiturakoak edo sustapeneakoak izan behar, sektorean esku hartzeko asmoarekin.

**Sektore pribatu-komertziala**

- 1. Aldizkako profesionalak
- 2. Profesional autonomoak eta mikroenpresak
- 3. ETEak
- 4. Enpresa handiak eta korporazioak

**Sektore soziala**


- 8. Hiritar aktiboa banaka
- 9. Erakunde informalak
- 10. Elkarateak
- 11. Fundazioak

**Sektore publikoa**

- 5. Administrazio publikoak
- 6. Enpresa publikoak
- 7. Zuzenbide publikoko beste erakundeak batzuk

**4. sektorea**

- 12. Ekonomia sozialeko enpresak
- 13. Elkarre profesionalak
- 14. Klusterrak
- 15. Sareak



## 2

### KULTURA ETA SORMEN ARLOKO SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK



Kultura eta sorkuntza bezala hartzen da hemen kultura arloa osatzen duten eta hari era zabalean eragiten dioten jarduera esparruen multzoa. Errealitate konplexua da, eta alderdi antropologikoak, soziologikoak, politikoak, zuzenbide-administraziokoak, ekonomia eta ekoizpenekoak eta abar txertatzen ditu.

KULTURASISTEMAK proposatzen duen sailkapenak bost sektore edo maila ditu, bereiziak baina elkarlotuak; horiei beste sektore bat gehitu diegu, gurutzatze edo zeharkako sektorea. Sektore horiek zirkulu zentrokideekin irudikatzen dira; erdiguneko zirkuluei izaera germinalagoa eman zaie, eta kanpoko zirkuluek, ostera, tresna izaera daukate.

0. Zeharkako sektorea.

1. Kultura ondarea.
2. Arteak.
3. Arte aplikatuak eta lanbide sortzaileak.
4. Kultura eta sormen industriak.
5. Artikulazio zerbitzuak eta industria laguntzaileak.


Era berean, sektore horiek, Zeharkako sektorea salbu, diziplinen araberako hainbat azpisektoretan zatituta daude. Horiek, aldi berean, era askotako jarduera bereiziz osatuta daude; jarduera horiek, gero, zorrotasun izaerarik gabe, zerrendetan ageri dira. Kasuan kasuko eragile mota edo jardun eremua (egiturazko eremua, sustapen eremua edo sorkuntza eremua) edozein dela ere, eragile hauek edozein sektore eta azpisektoretan joka dezakete.

Sektorearen berezitasunak aintzat hartuta, garrantzitsua da nabarmentzea proposatutako kategoriak ez direla ez puruak, ezta itxiak ere, jardun eremu espezializatu berriak sortzen direla, sektore bat edo gehiagoren artean modu gurutzatuan kokatzen diren jarduerak ere badirela, eta, hainbatetan nabarmena dela bata bestearen gainean kokatzea, batzuetan kultura edota sorkuntzako balio katearen katebegiekin ere. Gainera, erabaki da ardatzetik kanpo uztea hurbileko sektoreak edo lotura estuak dituztenak, hala nola, ondare naturala, kirola edo turismoa (zehazki kulturala dena izan ezik).

**KULTURA ETA SORMEN  
ARLOKO SEKTOREAK ETA  
JARDUN EREMUAK**



**Egiturazko eremua**  
**ESPAZIO ETA**  
**PLATAFORMAK**  
(fisikoak eta birtualak)



**Sustapen eremua**  
**ARAUTU, SUSTATU**  
**ETA BULTZATZEKO**  
**ERAGILEAK**

**ZEHARKAKO**  
**SEKTOREA**



**Sorkuntza eremua**  
**EKINTZA ZUZENENKO**  
**ERAGILEAK**



## KULTURA ETA SORMEN ARLOKO SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK

### 0. ZEHARKAKO SEKTOREA

Gaur egun, kultura edo sorkuntza adierazpen ugari beste adierazpen batzuetatik sortzen dira, beste adierazpen batzuekin lotzen dira edo haiekin nahasten dira; hala, per se jarduera hibridoak edo dialogikoak garatzen dituzten eragileei berariaz erreferentzia egiteko gehitu dugu aipatutako Zeharkako sektorea, horrelako eragileen kopurua gero eta handiagoa den garai honetan, dela modu intrakulturalean (kultura eta sorkuntzako hainbat sektore edo azpisektoreen artean, sektore menderatzailerik gabe), dela kulturatik kanpo (kultura eta sorkuntzako hainbat sektore edo azpisektore gurutzatuz beste diziplina eta ezagutza eremu batzuekin).



### 1. KULTURA ONDAREA

Ondasun kultural material eta immaterialen multzo zabala, komunitate baten identitate dinamikoa osatzen duena, komunitate horrentzat testigantza eta sinbologia historiko-kulturala irudikatzen duena, zaindu, iraunarazi eta areagotzeko asmoarekin belaunaldi batek jaso eta hurrengoari transmititzen dion oinordetza da, etorkizuna sortzeko oinarri kultural gisa eratuta.



#### Ondare kultural materiala

Higigarria (artistikoa, bibliografikoa, altzariak...) eta higiezina (monumentuak, eraikinak eta lekuak).



#### Ondare kultural immateriala

Ohitura eta adierazpen biziak osatutakoa, jakintza, hizkuntza, ospakizun, memoria kolektiboa eta kultura tradizionala.



#### Ondare kultural naturala

Aztarna arkeologikoak, testuinguru naturalean; fosilak, lurrekoak eta ur azpikoak, iritzi zientifikoko beste material batzuk; horrez gain, denbora eta espazio jakin batean sortutako paisaia kulturala ere bai.



#### Ondareari aplikatutako jarduera esparruak

Arkeologia / Artxibozaintza eta bibliotekonomia / Dokumentazioa eta katalogazioa / Historiografia / Museografia / Paleontologia / Zaharberritzea / ...

### 2. ARTEAK

Sortu, konposatu eta proposatzeko esparrua, lan eginez askotariko forma, material, hizkuntza, adierazpide eta harremanen bitartez, eta sortuz esanahi berriak, kontakizunak, emankizunak, antolamenduak, espazio sinbolikoak eta subjektibotasunak.



#### Literatura

Eleberria / Gidoigintza / Itzulpen literarioa / Komikiak / Poesia / Saiakera / ...



#### Musika

Garaikidea / Herrikoia / Klasikoa / Korala / Lirikoa / ...



#### Eszenikoak eta zuzenekoak

Antzerkia / Bertsolaritza eta inprobisazioa / Dantza / Magia / Performancea / Zirkua / ...



#### Plastikoak eta irudienak

Animazioa / Argazkigintza / Eskultura / Grabatuak / Ikus-entzunezko sormena / Marrazketa / Pintura / ...



#### New Media Art

Arte elektronikoa / Arte multimedia eta elkarreragilea / Artea eta zientzia / Datuen kultura / Esperimentazio artistikoko *hardwarea* eta *softwarea* / ...



#### Harremanetakoa

Artibismoa / Komunitate artea / Portaera artea / Testuinguru praktika / ...

### 3. ARTE APLIKATUAK ETA LANBIDE SORTZAILEAK

Arteetako ezagutzak eta teknikak erabiltzen dituzten jardura artistikoen multzoa, beste diziplina tekniko batzuekin konbinatuz, elementu funtzionalak ekoizteko helburuarekin.



#### Eskulangintza

Beira / Bitxigintza / Larrukigintza / Musika instrumentuak / Ehungintza / Zeramika / Zura / ...



#### Diseinua

Argitalpena / Esperientziak / Grafikoa / Ilustrazioa / Industrialia / Jolasak eta jostailuak / Kultura *maker* / Moda / Multimedia / Produktuak / Prozesuak / Zerbitzuak / ...



#### Arkitektura

Arkitektura efimeroa / Altzariak / Barne-diseinua / Eraikuntza / Eszenografia / Hirigintza / Paisajismoa / ...



#### Gastronomia

Elikadura kultura / Esperientzia gastronomikoak / Sukaldaritzako I+G / Sukaldaritza sortzailea / ...

### 4. KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK

Kultura eta sormen eduki nahiz produktuei euskarri material edo immateriala eskaintzen dieten jardura multzoa da, ekoizpen sistematizatua, seriatua eta haren banaketa masiboa ahalbidetzen duena (ekoizpen estandar horri estu lotutako zerbitzuak barne).



#### Argitalpenak

Edizio mugatuak / Katalogoak / Liburuak / Prentsa eta aldirakako argitalpenak / ...



#### Musika

Diskoetxeak / Musika ekoizpena / Sustatzaileak / ...



#### Ikus-entzunezkoak

Bideoa / Bikoizketa / Irratia / Tebista / Zinema / ...



#### Baliabide berriak

Bideo jokoak / Eduki digitalak / Entrenimenduko *hardware* eta *software* / Fabrikazio digitala / Hezkuntzako *hardware* eta *software* / Transmedia / ...



#### Hizkuntzako industriak eta zerbitzuak

Hizkuntzak irakastea / Hizkuntzaren teknologiak / Itzulpen gintza eta interpretazioa / Terminologia-lexikografia / ...

### 5. ARTIKULAZIO ZERBITZUAK ETA INDUSTRIA LAGUNTZAILEAK

Prestakuntza, laguntzeko zerbitzuak, euskarri teknikoak, ekoizteko eta erreproduzitzeko bitartekoak edo espezializatutako beste arte eta kultura jardura batzuen askotariko multzoa da, askotan zeharkakoak direnak, kultura edo sormen sektoreei zuzendutakoak, zein kultura arlotik beste esparru batzuetara aplikatutakoak.



#### Arte eta kultura hezkuntza

Formala (hezkuntza sistema arautua, maila desberdinetan) / Ez formala (hezkuntza espezializatua, sistema araututik kanpo).



#### Bitartekaritza kulturala

Aretoko laguntza / Bitartekaritza artistikoa / Bitartekaritza kulturantza / Bideratzea, dinamizatzea eta animatzea / Gida kulturala / Zerbitzu pedagogikoak / ...



#### Bitartekaritza artistikoa

Kuraduria / *Management* eta ordezkaritza / Programazioa / ...



#### Komunikazioa

Harreman publikoak eta hedabideekikoak / Ikusleak eta entzuleak kudeatzea / Publizitatea / *Social media* / *Ticketing* / ...



#### Ekitaldiak antolatu eta ekoiztea

Azokak / Biltzarrak / Jaialdiak / ...



#### Aisialdia eta jolasak

Denbora libreko jarduerak / Turismo kulturala / ...



#### Kultura aholkularitza

Aholkularitza eta laguntza / Analisia-lkerketa / Sormena eta berrikuntza / Zerbitzu juridiko espezializatuak / ...



#### Kultura kudeaketa

Idazkaritza teknikoa / Kultura administrazioa / Kultura proiektu eta antolakuntzak diseinatu nahiz kudeatzea / ...



#### Finantzazioa

Babesa eta mezenasgoa / Mikrofinantzazioa eta inbertsio kolektiboa / Sektorerako berriarizko finantza produktuak / ...




#### Produktzio eta erreproduktzio zerbitzuak eta baliabideak

Arte grafikoak / *Hardwarea*, *softwarea* eta telekomunikazioak / Mekanizazioa eta produktzio industrialia / Produktzio museografikoa / Zerbitzu eta talde teknikoak / ...

**KULTURA ETA SORMEN  
ARLOKO SEKTOREAK ETA  
AZPISEKTOREAK ETA  
JARDUN EREMUAK**



**Egiturazko eremua  
ESPAZIO ETA  
PLATAFORMAK**  
(fisikoak eta birtualak)



**Sustapen eremua  
ARATU, SUSTATU  
ETA BULTZATZEKO  
ERAGILEAK**


**ZEHARKAKO  
SEKTOREA**



**Sorkuntza eremua  
EKINTZA ZUZENKO  
ERAGILEAK**

# 3

## BALIO KATEA




Balio katetzat jotzen da balioa eransteko bereizitako etapen multzoa: era kateatuan -nahitaez hurrenez-hurrenekoa izan beharrik gabe-, eskaintza eta eskariaren arteko loturak funtzionamendu zuzena izateko beharrezko jarduerak ziklikoki irudikatzeo aukera ematen du. Katebegietan, gehienetan, eragile bat baino gehiago egoten da.

Kultura eta sormeneko sektore eta azpisektore guztien balio katea analizatzea eta haren baitan banan-bana erakunde edo profesionalek duten kokapena ezagutzea oso erabilgarria da estali gabeko espazioak eraginkortasun gabeziak, gehiegizko agerpenak eta ingurune batek eskaintzen dituen aukerak ulertzeko, sarritan ekimenak bideragarri izan daitezten eta ekosistema osoa gara dadin erabakigarriak direnak. Informazio hori funtsezkoa da erakundeek, profesionalek eta kultura politiketako edo sormena sustatzeko arduradunek, profesionalek eta erakundeek testuinguruan egoki kokatutako planak eta estrategiak zehaztu ditzaten.

Nahiz eta barne mailan eragile bakoitzak dituen helburuak betetzeko nor bere balio katea zabaldu (prozesuak, produktuak, zerbitzuak, esperientziak, eta abar eskaini eta garatu), KULTURISISTEMAn eragile bakoitzak kanpoko balio katean betetzen duen kokalekuari edo kokalekuei begiratzen diegu arretaz. Hau da, sektoreko merkatu berariazkoaren barruan eragile bakoitzak bere jarduera fokua identifika dezan nahi dugu, bere ekarpen eta zentzu nagusia, hain zuzen. Esate baterako, eragile guztiek finantzazioa behar duten arren, haien lanbidea ez da halabeharrez kultura proiektuak edo erakundeak finantzatzeari. Horrenbestez, kate-begi horretan kultura finantzatzen duten eragileak edo hirugarren jendea finantzazioa eskuratzera bideratzen duten eragileak bakarrik aurkitu beharko genituzke.

KULTURISISTEMAn gure helburua izan da, grafiko bakarrean, sektore eta azpisektore guztietako balio kate denek osatzen dituzten kate-begi guztiak biltzea. Gainera, erabilgarriak izan daitezten, kate-begi bakoitzean hainbat azpifase edo eginkizun bildu ditugu.

# BALIO KATEAREN FASEAK



### BABESA / KONTSERBAZIOA / ZAHARBERRITZEA

Jatorrizko kultura eta arte adierazpen ordezkaezinak babestu, erreskatatu eta iraunarazteko jardura eta prozesuak, adierazpen horiek identifikatzeko, hondatzea saihesteko, gaur egungo zein etorkizuneko belaunaldiari helarazteko, baita arduraz eta modu iraunkorren erabiltzea sustatzeko ere.

### DOKUMENTAZIOA / ARTXIBATEGIA

Informazioa kudeatzeko lanak, agiri ondarea bermatze aldera, baita ezagutza modu ordenatu eta sistematizatuan sortu, partekatu eta hedatzea ere.

### ANALISIA / EBALUAZIOA

Tresnak, indizeak eta adierazleak sortzea -eta eragin eta egoera azterlanetan aplikatzea denboran zehar-, baita sormen eta kultura ekintzak, proiektuak, programak eta politikak ere.

### ZABALKUNDEA / GIZARATERATZEA / PARTE HARTZEA

Sorkuntza eta kultura jardunetarako egokiak diren testuinguruak sortu eta irisgarritasun eta elkarrekintzara bideratutako errazte ekintzak. Elkarrengandik ikastea, mintzatzea eta ezagutza bultzatzen dute, baita komunitatea kultura ekoizpenean inplikatzeko ere, gertaera sozial modura.

### SUSTAPENA / KOMUNIKAZIOA / KRITIKA

Sorkuntza eta kultura ekoizpenen analisi kritikoa eta/edo pertsuasioa, balioan jartzea, hedatzea, modu aktiboan entzutea helburutzat daukaten ekintzak, helburuko publikoei dagokienez.

### ERAKUSKETA / PROGRAMAZIOA

Sormen prozesuak, ekoizpenak edo sorkuntzak azken hartzailearen aurrean erakustea, aurkeztea edo ikusgai jartzea, modu isolatuan zein jardun programa baten parte gisa.

### BANAKETA / BITARTEKARITZA / MERKATURATZEA

Sormen edo kultura esperientzia, ideia, zerbitzu edo produktuen eskaintza, ekoizpen propioa izan zein ez, merkaturatu jartzeko ekintza espezializatuak, kanal fisiko edo birtualak erabiltzeko.

### PRESTAKUNTZA / GAIKUNTZA (FORMALA ETA EZ FORMALA)

Arte eta kultura eta sormen jardun edo adierazpenen inguruko ezagutzak, metodologiak, teknikak, lengoaiak eta abar garatzea eta hirugarrenei transferitzea, orientazio profesionalarekin, irakaskuntza sistema arautuaren markoan edo hezkuntza ingurune ez formalean.

### ESPERIMENTAZIOA / KONTZEPTUALIZATZEA / SORKUNTZA / INTERPRETAZIOA

Ideiak eta jardunak arakatu, garatu, konbinatu eta kontrastatzeko prozesuak, sorkuntza berriak sorrarazteko edo aurretik existitzen ziren sorkuntzak berriz sortzeko; arte eta kulturaren eremu edo adierazpide baten inguruko ezagutza berria, begirada berria edo jarrera berriak sortzeko, edo, azken horiek erabiliz, beste esparru edo gizarte-eremu batzuetan aldaketak eta eraldaketak eragiteko.

### FINANTZAZIOA

Diru baliabideak edo bestelako baliabideak erakarki edo sorrarazten espezializatutako aholkularitza edo bitartekaritza, zuzeneko ekarpena, kultura eta sormen ekosistemako pertsona fisiko edo erakunde baten proiektuak eta/edo eguneroko jarduna garatzera bideratutakoa.

### ADMINISTRAZIOA / KUDEAKETA

Aholkularitza, plangintza eta kudeaketa espezializatu alderdi estrategikoetan, antolaketan, alderdi operatiboetan, administrazioan, zerga arloan eta/edo lege kontuetan, funtsezkoak baitira kultura eta sormen jardura garatzeko.

### AURREPRODUKZIOA / PROTOTIPATZEA


Kultura ideia, produktu edo esperientzia bat ekoitzi, gizarteratu edo merkaturatzeko beharrezkoak diren alde aurreko prestakuntza prozesuak, sormen hurbilketak eta lanak, entsegu prozesuak barne (proba-akatsa); fisikoki edo bisualki islatzeko sistema desberdinak, hurrengo faseetarako erabakiak hartzean orientagarriak badira.

### PRODUKZIOA / POSTPRODUKZIOA

Prozesu eta jardueren antolaketa sistematizatu; horri esker, posible da prototipo edo ideia formalak ezagutza edo pentsamendu eredu bihurtzea, kultura esperientzia, produktu edo zerbitzu bihurtzea, banatu, komunikatu, hedatu edo merkaturatu baino lehen, baita ondorengo laguntza tekniko, eguneratzea eta jarraipena egitea ere.

### ERREPRODUKZIO INDUSTRIALA

Arte, kultura edo sormen sorkuntza baten ekoizpen seriatuko prozesuak, fisiko edo digitala, modu masiboan banatzeko eta modu mailakatuan hobetzeko aldagai ekonomikoari eta/edo sarbide aldagaiari dagokienez.



# 4

## ERAGINAK ETA ITZULERAK




Eragintzat jotzen ditugu plan, programa, proiektu, zerbitzu edo ekintza jakin bat gizarte talde batean, esparru zehatz batean edo prozesuan bertan, antolakuntzan edota esku hartzen duten eragileengan inplementatzearekin lotutako ondorio, aldaketa edo emaitzak.

Ondorio horiek, eta epe labur, ertain edo luzeko kausa-ondorioak tipologia anitzekoak izan daitezke, hala nola, barne edo kanpo itzulerak, zehatzak edo globalak, planeatuak edo aurreikusi gabeak, positiboak, negatiboak edo neutroak; zuzenak edo zeharkakoak. Eta aintzat hartu behar da, bidenabar, euren kopurua, kalitatea eta hedadura.

Jakinik badiirela, besteak beste, politikak ebaluatzeko adierazleak, sormena eta lurraldearen garapenerako sektorearen potentzialtasuna neurtzen duten adierazleak edo kultura ekintza batek tokiko ekonomian duen eragina kuantifikatzeko sistemak, adibide batzuk jartzearen, KULTURSYSTEMAn, modu osagarrian, erreferentziako hamahiru dimentsio eta lau indize dituen sorta bat garatu dugu autodiagnostikorako, zenbatzeko analisisa baino gehiago gogoetarako izaera duena.

4. indizea  
ERAGIN  
EKONOMIKOAK

1. indizea  
ERAGINAK GIZARTEAN  
ETA KULTURAN



3. indizea  
ERAGINA  
SEKTOREAN

2. indizea  
ERAGINA  
JARDUERAN



## 1. indizea ERAGINAK GIZARTEAN ETA KULTURAN

---

Testuinguruan, lurraldean, pertsonetan, sistema sozialetan eta elkarrekin gainditu beharreko erronketan izandako ondorioak.

- A Gizarte sortzailea**  
Norberaren eta taldearen sormena eta sorkuntza, pentsamendu kritikoa eta kontakizun imaginario eta subjektibo berrien ekoizpena sustatzea.
- B Garapen kulturala**  
Demokrazia eta kultura demokratizazioa sustatzea. Kultura eskubide gisa garatzea. Kultura ekoizpena eta gozamenara sarbidea izatea. Publikoak sortu eta kualifikatzea.
- C Garapen soziala**  
Kohesio soziala hobetzea eta hezkuntza, integrazio, bizitza osasungarri, ingurumen edota aisialdiari lotutako erronkei aurre egitea.

## 2. indizea ERAGINA JARDUERAN

---

Jardueran bertan egon daitezkeen eraginak, dela bertako edukia dela garatzeko modua barne.

- D Berrikuntza 'Zer' ataletan**  
Idea eta eduki berriak sortzea. Kultura jarduera, produktu, zerbitzu eta esperientzien eskaintza berritzaile eta berezia sortzea.
- E Berrikuntza 'Nola' ataletan**  
Harreman, gobernantza, sorkuntza, ekoizpen, banaketa eta jabetza sistema, metodologia eta tresna berriak sortzea eta/edo garatzea.
- F Kolaborazioa**  
Espazio eta jardun kolaboratzaileak sustatzea. proiektu eta prozesu kolektiboetan parte hartzea. Elkarte, sare eta aliantzen bitartez artikulatzea.
- G Iraunkortasuna**  
Ingurunea zaindu, baliabideak zentzuz erabili eta eragin ekologikoa gutxitzeari lotutako irizpideak eta neurriak aplikatzea.

## 3. indizea ERAGINA SEKTOREAN

---

Sektore kulturean bertan eragindako albo ondorioak, baita beste sektore sozialetan, produktiboetan eta sektore publikoan ere.

- H Eragina kultura sektorean bertan**  
Dinamizazioa eta gaitasun traktorea, hauek direla medio: dimentsioa, erreferentzialtasuna eta harremanak, berritzeko gaitasuna, merkatuak irekitzea, industrializatzeko ahalmena, etab.
- I Eragina jardueraren beste sektore batzuetan**  
Diziplina arteko harreman eta sektore arteko hibridazio, transferentzia, elkarrizketa eta lankidetzak sustatzea.
- J Eragina sektore publikoan**  
Neurri eta plan berriak eta politika publikoak ebaluatu eta garatzen laguntzea. Gobernu irekiko prozedura eta estandarren bilakaera.

## 4. indizea ERAGIN EKONOMIKOAK

---

Aberastasuna sortu eta banatzearekin, enpleguarekin edo jarduera nazioartekotzearekin zerikusia duten eraginak.

- K Ekarpn ekonomiko-kuantitatiboa**  
Zuzeneko edo zeharkako etekinak sorraraztea (kanpotasun positiboak). Kapitalen banaketa. Fakturazioaren bolumena, ekarpena BPGen eta itzulketa fiskalak.
- L Enplegua bultzatzea**  
Zuzeneko edo zeharkako enplegua sortzea eta/edo iraunaraztea. Lan baldintzak eta berdintasun neurriak, gizarteratzea, kontziliazioa, garapen pertsonala...
- M Nazioartekotzea**  
Presentzia merkatuetan edo kanpo merkataritzan. Parte hartzea sareetan, zirkuituetan edo nazioarteko proiektuetan

# 5

## GURUTZAKETAK ETA KONBINAZIOAK



Kultura eta sormen ekosistemako indarra eta balioa honakoetan dago gero eta gehiago: lehendik zeuden eragileak berriz definitzean eta kokatzean; eragile berriak agertzean, tipologiari, jarduera-esparruei edo ezagutza gizarteratzeko moduei dagokienez haien aniztasuna ohiko konbentzioetatik harago doana; eta horien nahasteak fenomeno berriak sortzeko eskaintzen dizkigun aukeretan.

Horregatik, KULTURISISTEMAK proposatu ditu, alderdi garrantzitsu bakoitza era berezian analizatzeko balio duten matrizeez gain, hiru matrize osagarri (datuak gurutzatzen dituztenak), lagunduz interpretazio doiagoa egiten eta berezitasunetan, potentzialitateetan eta aukeretan aurkitzen nahiz arreta jartzen, lurralde baten edo eragile baten jardun esparruan.

- **Sektoreak eta azpisektoreak balio katearekin gurutzatzeko matrizea.** Erakunde batek arretagune nagusia non duen -eta non ez duen- ikusteko balio du, edo zein den lurralde baten banaketa, kultura eta sormen eragileen jardun nitxoei dagokienez; horrenbestez, horri esker identifika daiteke zein espazio dagoen estali gabe, eta zeinetan den ordezkaritza gehiegizkoa.
- **Eragileen tipologiak balio katearekin gurutzatzeko matrizea.** Lurralde esparru zehatz batean joerarik dagoen ikusteko aukera ematen du, sorkuntza eragileek gizartean eta merkatuan egiten duten ekarpenaren balioari dagokionez, izaera formalean oinarrituz.
- **Eragileen tipologiak sektore eta azpisektoreekin gurutzatzeko matrizea.** Aurkezten den argazkian ikus daiteke arte, kultura edo sorkuntzako zein jardun-esparru baldintzatzen duen izaera formalean oinarrituta aztertutako eragile motak.

SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK BALIO KATEAREKIN GURUTZATZEKO MATRIZEA



**Egiturazko eremua**  
**ESPAZIO ETA PLATAFORMAK**  
(fisikoak eta birtualak)



**Sustapen eremua**  
**ARAUTU, SUSTATU**  
**ETA BULTZATZEKO**  
**ERAGILEAK**

**ZEHARKAKO SEKTOREA**



**Sorkuntza eremua**  
**EKINTZA ZUZENENKO**  
**ERAGILEAK**

ERAGILEEN TIPOLOGIAK  
BALIO KATEAREKIN  
GURUTZATZEKO  
MATRIZEA



- 1 **Sektore pribatu-komertziala**
- 2 **Sektore publikoa**
- 3 **Sektore soziala**
- 4 **4. sektorea**

# ERAGILEEN TIPOLOGIAK SEKTORE ETA AZPISEKTOREEKIN GURUTZATZEKO MATRIZEA




**Egiturazko eremua  
ESPAZIO ETA PLATAFORMAK  
(fisikoak eta birtualak)**

**Sustapen eremua  
ARAUU, SUSTATU ETA BULTZATZEKO  
ERAGILEAK**


**Sorkuntza eremua  
EKINTZA ZUZENEKO ERAGILEAK**

1. Aldizkakoak profesionalak
2. Profesional autonomoak eta mikroenpresak
3. ETEak
4. Enpresa handiak eta korporazioak
5. Administrazio publikoak
6. Enpresa publikoak
7. Zuzenbide publikoko beste erakunde batzuk
8. Hiritar aktiboa banaka
9. Erakunde informalak
10. Elkarateak
11. Fundazioak
12. Ekonomia sozialeko enpresak
13. Elkarate profesionalak
14. Klusterrak
15. Redes



# 6

## ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA



## ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA

Aspillaga Fariña, Alejandra eta beste egile batzuk, *Mapeo de las industrias creativas en Chile, caracterización y dimensionamiento*, Consejo Nacional de la Cultura y las Artes de Chile Ed., Txileko Santiago, 2014.

[http://cid.uchile.cl/images/stories/docs/mapeo\\_industrias\\_creativas.pdf](http://cid.uchile.cl/images/stories/docs/mapeo_industrias_creativas.pdf)

Benavente, José Miguel eta Grazi, Matteo, *Políticas Públicas para la Creatividad y la Innovación. Impulsando la economía naranja en América Latina y el Caribe*. Banco Interamericano de Desarrollo argitaletxea, Washington, 2017

BOP Consulting, *Mapping the Creative industries: a toolkit*, British Council, London, 2010.

<https://drive.google.com/file/d/0B8wtUgiNuDMWUW12NW9pQ1lUb00/view>

Castro Higuera, Antonio, *Las industrias culturales y creativas y su índice de potencialidad*, Comunicación Social Ed., Salamanca, 2017.

<http://www.comunicacionsocial.es/catalogo/colecciones/contextos/las-industrias-culturales-y-creativas-y-su-indice-de-potencialidad>

Chapain, Caroline eta beste egile batzuk, *Creative clusters and innovation*, Ed. NESTA, Londres, 2010.

[https://www.nesta.org.uk/sites/default/files/creative\\_clusters\\_and\\_innovation.pdf](https://www.nesta.org.uk/sites/default/files/creative_clusters_and_innovation.pdf)

Códigos CNAE de actividades económicas.

<http://www.codigoscnae.es/todosloscodigoscnae>

ColaBoraBora, *Ecosistema I+C+i*, Bilbo, 2016.

<https://www.colaborabora.org/2016/08/26/ecosistema-ici/>

De Voldere, Isabelle (koordinatzailea) eta beste egile batzuk, *Mapping the creative value chains. A study on the economy of culture in the digital age*. European Commission DG Education and Culture, Luxembourg, 2017.

<https://www.culturepartnership.eu/en/article/mapping-the-creative-value-chains>

Eusko Jaurlaritzak, *Prioridades estratégicas de especialización inteligente RIS3 para Euskadi*, Vitoria-Gasteiz, 2014.

[https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/4633/prioridades\\_estrategicas201404\\_ris3\\_gobierno\\_vasco.pdf?1400573225](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/4633/prioridades_estrategicas201404_ris3_gobierno_vasco.pdf?1400573225)

Gomez de la Iglesia, Roberto, *Gestión creativa: ciudades y organizaciones creativas en Manual Atalaya. Apoyo a la gestión cultural*, Universidad de Cádiz Ed., Cadiz, 2014.

<http://atalayagestioncultural.es/capitulo/herramientas/gestion-creativa-ciudades-organizaciones-creativas>

Gomez de la Iglesia, Roberto eta Perez Martín, Miguel Angel, *El técnico en Actividades Socioculturales*, Xabide Ed., Vitoria-Gasteiz, 1992.

Hainbat egile, *Agenda 21 de la Cultura*, (tokiko kultura politikoak jorrazteko Batutako Hirien eta Tokiko Gobernuen Foroan sortutako dokumentua), CGLU Ed., Bartzelona, 2015.

[http://www.agenda21culture.net/images/a21c/nueva-A21C/C21A/C21\\_015\\_spa.pdf](http://www.agenda21culture.net/images/a21c/nueva-A21C/C21A/C21_015_spa.pdf)

Hainbat egile, *Análisis de la cadena de valor y propuestas de política cultural*, Kulturaren Euskal Behatokia\_Eusko Jaurlaritzak arg., Vitoria-Gasteiz, 2015.

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/informacion/analisis-de-la-cadena-de-valor-y-propuestas-de-politica-cultural-2015/r46-19803/es/>

Hainbat egile, *Creative Economy Report. Special edition*. UNDP eta UNESCO arg., Paris, 2013.

<http://www.unesco.org/culture/pdf/creative-economy-report-2013.pdf>

Hainbat egile, *Creative Industries in Estonia, Latvia and Lithuania*. Argitaratzailea, Estoniako Kultura Ministerioa, Tallinn, 2010.

[http://www.looveesti.ee/wp-content/uploads/2016/01/CI\\_ELL\\_A4\\_kahepoolne\\_coated1.pdf](http://www.looveesti.ee/wp-content/uploads/2016/01/CI_ELL_A4_kahepoolne_coated1.pdf)

Hainbat egile, *Economía Creativa*, UNCTAD Ed. (Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen hitzaldia), Geneva, 2010.

[http://unctad.org/es/Docs/ditctab20103\\_sp.pdf](http://unctad.org/es/Docs/ditctab20103_sp.pdf)

Hainbat egile, *Estudio sobre el Ecosistema Cultural de Puerto Rico*, Comisión para el Desarrollo Cultural de Puerto Rico Ed., San Juan, 2015.

<https://es.scribd.com/doc/267486776/CODECU-Estudio-sobre-el-ecosistema-cultural>

Hainbat egile, *Guía para la evaluación de las políticas culturales locales*, Federación Española de Municipios y Provincias Ed., Madril, 2009.

<http://documentos.femp.es/files/120-18-CampoFichero/Evaluacionpol%C3%ADticas.pdf>

Hainbat egile, *La especialización inteligente en las industrias culturales y creativas*, Innobasqueko Martes Jardunaldiak, Donostia, 2016.

<http://www.innobasque.eus/es/article/880/la-especializacion-inteligente-en-las-industrias-culturales-y-creativas>

Hainbat egile, *Manifiesto Mutare, Cultura y Transformación Social*, Fundación Carulla, Bartzelona 2018.

<https://mutare.cat>

Heerad, Sabeti eta 4.sektoreko Network Concept Working taldea, *The emerging Fourth Sector*, Ed. The Aspen Institute, Washington, DC, 2009.

<https://www.aspeninstitute.org/publications/emerging-fourth-sector-executive-summary/>

Howkins, John, *The Creative Economy. How People Make Money from Ideas*, Penguin Books Ed., 2002.

<http://www.johnhowkins.com/wordpress/>

ILAM Fundazioa, *Los diversos patrimonios*, San Jose, 2006.

<http://www.ilam.org/index.php/es/programas/ilam-patrimonio/los-diversos-patrimonios>

KEA, Media Group y MKW, *The economy of the Culture in Europe*, Bruselas, 2006.

[http://ec.europa.eu/culture/library/studies/cultural-economy\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/culture/library/studies/cultural-economy_en.pdf)

Kind, Sonja eta Meier zu Köcker, Gerd, *Developing Successful Creative & Cultural Clusters*, Projektzukunft Ed., Berlin, 2012.

[http://www.berlin.de/projektzukunft/fileadmin/user\\_upload/pdf/studien/Report\\_Impact\\_Assessment\\_2013-web.pdf](http://www.berlin.de/projektzukunft/fileadmin/user_upload/pdf/studien/Report_Impact_Assessment_2013-web.pdf)

Pratt, Andy C., *The Cultural Industries Production System: A Case Study of Employment Change in Britain, 1984-91* (Environmental and Planning A, 29. liburukia: 1953-1974), Pion, Londres, 1997.

<http://citeseerx.ist.psu.edu/viewdoc/download?doi=10.1.1.1018.3510&rep=rep1&type=pdf>

Ratzenböck, Veronika eta beste egile batzuk, *An analysis of the economic potential of the creative industries in Vienna*, City of Vienna, Viena, 2004.

<http://www.culturenet.cz/en/cultural-policy/analysis-of-the-economical-potential-of-the-creative-industries-in-vienna/kp:165/>

# K RR S K N

KULTURA BERRIKUNTZAN  
BERRIKUNTZAREN KULTURA  
INNOVACIÓN EN CULTURA  
CULTURA DE LA INNOVACIÓN

KARRASKAN.ORG

KULTURSISTEMA kulturaren berrikuntza eta berrikuntzako kultura sustatzen aritzen den KARRASKAN elkarte profesionalen garatutako proiektua da. Roberto Gómez de la Iglesiak (Conexiones improbables) eta Ricardo Antón Troyasek (ColaBoraBora) garatu dute, Nerea Márquez Txarramendietaren lankidetzarekin (ojobuey.com) bereizmen grafikoan, eta Iranzu Guijarro Plazaren lankidetzarekin lehen edizioaren mapeatze lana koordinatzen eta bigarren edizioaren berrikusketa lanetan. Gainera, KARRASKANeko hainbat bazkidek eta kultura zein instituzioetako beste eragile batzuek parte hartu dute erreferentziak aberasten eta edukien kontraste irekian aurkezpen eta tailer praktikoetan.

KULTURSISTEMA hainbat fasetan garatzeko KARRASKANek hainbat erakunde publikoren babesa jaso du, kultura arlo, sail edo ministerioen bitartez; honako hauek izan dira: Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Getxoko Udala.



KULTURSISTEMA Creative Commons by-sa lizentziaren menpe dago. Aitortza - Berdin Partekatzea (by-sa), lana era askean erabiltzea eta eraldatzea ahalbidetzen duen lizentzia da, baldintza bezala jarrita jatorrizko egileak aipatzea, eta horretatik eratorritako emaitza ere lizentzia beraren menpe jartzea.

Lehen edizioa: 2017ko uztaila  
Bigarren edizio berrikusia: 2019ko maiatza  
Bigarren edizio berrikusi eta luzatua: 2020ko martxoa  
Tresna digitala Karraskanentzat garatzea  
[www.kultursistema.com](http://www.kultursistema.com): Bravo Manager







[kultursistema.com](http://kultursistema.com)